**UDAL OSOKO BILKURA / SESION PLENARIA MUNICIPAL**

**2016ko Abenduak 20a / 20 - Diciembre - 2016**

**TOKIA / LUGAR:** UDALETXEKO BATZAR ARETOA
SALA CAPITULAR DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

**EGUNA / FECHA:** 2016/12/20

**HASIERA / INICIO:** 17:00ETAN

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**PRESIDENTEA / PRESIDENTA (EAJ-PNV):**
Alkate andrea, Doña Aitziber Irigoras Alberdi

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EAJ-PNV):**
2. Alkateordea, Doña Maria José Balier Orobio-Urrutia andrea
3. Alkateordea, Don Iker Oceja Sobrón jauna
4. Alkateordea, Doña Goiztidi Díaz Basterra andrea
5. Alkateordea, Don Humberto Jaio Sagasti jauna
6. Alkateordea, Don Jose Maria Andres Ibañez de Garaio jauna
Doña Olaia Albizu Gallastegi andrea
Don Harri Guridi Ordeñana jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EH BILDU)**
Don Daniel Maeztu Perez jauna
Doña Eider Uribe Padilla andrea
Don Jon Andoni del Amo Castro jauna
Doña Rosa Maria Mintegi Egileor andrea
Don Jon Bingen Oier Landabidea Aranburu jauna
Don Aritz Bravo Zubillaga jauna
Don Iker Urkiza Quilez jauna

**HERRIAREN ESKUBIDEA (SQ-2D)**
Don Julian Rios Santiago jauna
Doña Maria Juliana Perera Figueredo andrea
Don Jorge Varela Dorrio jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PSE-EE (PSOE))**
1. Alkateordea, Doña Pilar Ríos Ramos andrea
Don Mauricio Garcia Martin jauna

**ZINEGOTZIA / CONCEJAL (PP)**
Don Francisco Garate Mintegui jauna

**KONTU-HARTZAILE ORDEA / INTERVENTORA EN FUNCIONES**
Doña Maria Pilar Velasco Pérez andrea

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Don Ramón Sorarrain Tolosa jauna

Alkate andreak batzarrari hasiera eman ondoren, 17:00ak direnean, bilera honetako gai-zerrenda osatzen duten asuntoak eztabaidatzeari ekin zaio. Gaiak ondorengo hauek dira:

Abierta la sesión por la Alcaldesa-Presidenta, siendo las 17:00 horas, se pasó a tratar los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y que son los siguientes:

**BAT.- BIDEZKOA BALITZ, AURREKO AKTAREN ZIRRIBORROAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA, 2016KO AZAROAREN 10EKO EZ OHIKOA.**

**UNO.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DEL ACTA DE LA SESIÓN CORRESPONDIENTE A LA EXTRAORDINARIA DE 10 DE NOVIEMBRE DE 2016.**

IRAKURRI OSTEAN aurreko batzarreko akta-zirriborroak, 2012ko ekainaren 12ko ez ohikoa eta 2012ko ekainaren 26ko ohikoa hain zuzen ere.

DADA LECTURA al borrador del Acta de la sesión correspondiente a la Extraordinaria de 10 de Noviembre de 2016.

BOZKETA egin ostean, Udaleko Osoko Bilkurak, aho batez, **ONARTU EGITEN DU 2016ko azaroaren 10eko** Osoko Bilkuraren ez ohiko akta.

PREVIA votación realizada al efecto, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, **APRUEBA** el Acta del Pleno Extraordinario de **10 de Noviembre de 2016**.

**BI.- INTERESDUN GAIEN BERRI EMATEA:**

**DOS.- DACIÓN DE CUENTA DE ASUNTOS DE INTERÉS:**

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Betiko moduan, zuen eskura egon dira eta daude tramitatzen ari diren espedienteak Idazkaritza Nagusian.

Udalbatza jakitun eta ados adierazten da.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Los expedientes que han estado y están en tramitación se encuentran, como siempre, disponibles en la Secretaría General.

El Ayuntamiento Pleno se da por enterado.

**HIRU.- ZABALARRA ESKOLAKO GURASO ELKARTEAREN ALDEKO HITZARMEN NOMINATIBOAREN DIRU-KOPURUA HANDITZEA PROPOSAMENA. (EUSKARA, KULTURA ETA HEZKUNTZA BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA, 2016KO ABENDUAREN 15EKOA).**

**TRES.- PROPUESTA DE AMPLIACIÓN DEL CONVENIO NOMINATIVO A FAVOR DE LA AMPA DE ZABALARRA ESKOLA. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE EUSKERA, CULTURA Y EDUCACIÓN DE 15 DE DICIEMBRE DE 2016).**

Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordearen 2016ko abenduaren 15eko irizpenaren berri ematen da:

Dada lectura al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Euskera, Cultura y Educación de 15 de Diciembre de 2016, del tenor siguiente:

*"2016ko abenduaren 15eko Euskera, Kultura eta Hezkuntza Batzordean Zabalarra Eskolako Guraso Elkartearen aldeko Hitzarmen Nominatiboaren diru-kopurua handitzea adostu da. 15.000 € gehiagokoa izango da, honako gastuetarako: eraikinaren mantenu gastuak eta azpiegitura konpontzeko gastuak, eraikina eta bertako elementuen egoera txarrak gastu gehiago eragin dituelako.*

*Aurrekontuetako diru-atala: Hezkuntza – Zabalarra eskola: 41.3232.48103.*

*Gastua barne hartu duen diru-atala: 81.2410.22707.*

*Bozketak ondorengo emaitza izan zuen:*

- *Alde: Olaia Albizu Gallastegi, Iker Oceja Sobron, Rosa Maria Mintegi Egileor, Jon Andoni del Amo Castro, Mauricio García Martín eta Jorge Varela Dorrio.*
- *Abstentzioak: Francisco Garate Mintegui.*
- *Kontra: Bat ere ez."*

*"En comisión del área de Euskera, Cultura y Educación del 15 de diciembre de 2016 se acuerda la ampliación de la firma de convenio colaborativo a favor de la AMPA de Zabalarra Eskola por la cantidad de 15.000 € de cara a la asunción de los gastos relativos al mantenimiento del edificio y reparación de la infraestructura debido al aumento de gastos derivados del deterioro del mismo y sus elementos.*

*Partida presupuestaria receptora: Educación – Zabalarra Eskola: 41.3232.48103.*

*Partida presupuestaria desde la que acometer el gasto: 81.2410.22707.*

*Se votó con el siguiente resultado:*

- *A favor: Olaia Albizu Gallastegi, Iker Oceja Sobron, Rosa Maria Mintegi Egileor, Jon Andoni del Amo Castro, Mauricio García Martín y Jorge Varela Dorrio.*
- *Abstenciones: Francisco Garate Mintegui.*
- *En contra: No se dan."*

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* Kontuhartzaile ordea **Velasco Perez andreak**: 2016ko abenduaren 15eko Euskara, Kultura eta Hezkuntza batzordeak Zabalarra eskolako guraso elkartearen aldeko hitzarmen nominatiboaren diru-kopurua 15.000 eurotan handitzearen aldeko irizpena hartu zuen. Diru hau eraikinaren mantenu eta azpiegitura konpontzeko erabiliko da; eraikinaren eta bertako elementuen egoera txarrak gastu handiagoak eragin dituelako.

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Uste dut puntu honetan onartu behar duguna gauzak ondo egin ez izanaren ondorioa dela, eta noski,

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Interventora en funciones, **Sra. Velasco Perez**: El 15 de diciembre del 2016, la Comisión de Euskera, Cultura y Educación dictó a favor de aumentar en 15.000 euros la cuantía del convenio nominativo para la asociación de madres y padres Zabalarra Eskola. Ese dinero se utilizará para los trabajos de mantenimiento y el arreglo de la infraestructura del edificio, ya que el mal estado del edificio y sus elementos ha causado mayores gastos.

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Creo que lo que tenemos que aprobar en este punto viene motivado de no haber hecho las cosas

ulertzen dugu gaizki egindakoa zuzendu egin behar dela, beraz, aldeko botoa emango dugu.

* 1. Alkate Ordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Gure ustez, ikastetxean gertatzen diren gorabehera guztiei irtenbidea emateko aukera eskaintzen digun tresna da hitzarmen hau. Ikastetxe honetan, urtetan, ikasle kopuruak gora egin du eta, beraz, behar ekonomikoak ere handiagoak dira. Diru kopurua handitzea beharrezkoa dela uste dugu eta aldeko botoa emango dugu.

* **Varela Dorrio jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Hitzarmena beharrezkoa da, eta batzordean maiatzean hitz eman zitzaien gaia da. Orduan ikastetxeko ordezkariak bertaratu ziren baliabide-gabezia larriaren berri emateko. Instalazio zaharkituen mantentze-lanen ondorioz zituzten arazoak ere azaldu zizkiguten. Horregatik eskatu dugu hitzarmen hau Euskara, Kultura eta Hezkuntza batzordean azken zazpi hilabeteotan, eta azkenean aurrera aterako da.

Bestalde, denborari dagokionez ere kontuan hartzea nahiko genuke, hau da, hemendik aurrera urtero egitea, esleipen hori mantentzeaz gain hitzarmena ahalik eta lasterrek egitea aurtengoaren moduko arazoak saihesteko; izan ere, Zabalarrako gurasoek euren poltsikotik ordaindu behar izan dituzte 20.000 euro argiaren, uraren, berogailuaren, mantentze-lanen eta abarren gastuei aurre egiteko. Hezkuntza-sistema publikoa mantentzeko modurik egokiena ote den galdetzen diogu geure buruari.

* **Mintegi Egileor andreak (EH Bildu)**: Laburpen txiki bat egingo dut hitzarmen honen inguruan.

Abenduaren 20an gaude, eta azkenean Zabalarrak izango du urte luze hauetan erreklamatu duena. Urte hasieran Zabalarra eskolako komunitateak aipatzen zuen aurretik zegoen hitzarmenarekin beraiek ezin zutela eguneroko gastu horiei aurre egin. Iruditzen zaigu herri baten funtsezko elementuetariko bat hezkuntza sistema izan behar dela, eta hori garatzeko garrantzitsua da finantziazioa.

bien, y por supuesto entendemos que lo que no esté bien hecho hay que arreglarlo; por lo tanto vamos a votar a favor.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Por nuestra parte, decir que este convenio es una herramienta que nos permite dar soluciones a todas las incidencias que ocurren en el centro. Es un centro que, a lo largo de los años, ha ido aumentando el número de alumnos y, por lo tanto, las necesidades económicas también son mayores. Consideramos que este aumento dinerario es necesario y vamos a votar a favor.

* Concejal **Sr. Varela Dorrio (Herriaren Eskubidea)**: Este es un convenio necesario, y es algo que se les prometió en mayo en la comisión, a la que las representantes del centro asistieron para dar cuenta de una grave falta de recursos y una serie de problemas que arrastraban en el mantenimiento de una instalación envejecida. Es por esto que en los últimos siete meses hemos estado en la comisión de Euskara, Cultura y Educación reclamando este convenio, y finalmente sale adelante.

Por otro lado, nos gustaría que se trasladase en el tiempo; es decir, que a partir de ahora se haga todos los años, no solo que se mantenga esta asignación sino que este convenio se realice lo antes posible para evitar problemas como el de este año, donde los padres y madres de Zabalarra han tenido que desembolsar de su bolsillo más de 20.000 euros para poder pagar los gastos de luz, agua, calefacción, mantenimiento, etc. Nos preguntamos si esta forma es la más adecuada de mantener el sistema educativo público.

* Concejala **Sra. Mintegi Egileor (EH Bildu)**: Realizaré un breve resumen sobre el convenio.

Estamos a 20 de diciembre y Zabalarra obtendrá, por fin, lo que ha reclamado desde hace muchos años. La comunidad escolar de Zabalarra mencionaba a principios de año que el convenio anterior no les daba para hacer frente a los gastos cotidianos. Creemos que uno de los principales elementos de un pueblo ha de ser el sistema educativo, y la financiación es importante para su desarrollo. Cuando la comunidad

Zabalarra eskolako komunitateak aldarrikapen hau egin zuenean, gure egin genuen eta aurrekontuen lanketan lehentasunen artean jarri genuen. Udal gobernuarekin adostu zen Zabalarraren hitzarmena 75.000 eurora igotzea eta beste 10.000 euro gehiago Julene Azpeitiarekin konpartituko zutela, azpiegituraren mantenurako. Ordutik, etengabe saiatu gara ia-ia batzorde guztietan gai hau ateraz eta administrazioan hainbat buelta emanez.

Irailaren 8a heldu zen, eta egoera nahiko kaskarra zen; hau da, dirurik gabe zegoen eskola eta esan zitzaigun diru hori falta zela hitzarmena handitzeko eta haren bila ari zirela. Urriaren 10ean kobratu zuten hitzarmenaren zati handi bat, baina oraindik falta zen beste 19.000 euro kobratzea, gehi 10.000 euro, Julene Azpeitiarekin partekatzeko.

Orain abenduan gaude, bi hilabete behar izan dira diru hori aurkitzeko, eta azkenean bi partida desberdinetatik atera da. Azpimarratuko genuke, berandu heldu bada ere, pozik gaudela hitzarmen hau sinatu ahal izan delako eta Zabalarrako komunitateak ere horixe esan digute.

Osoko bilkura honi eskatzen dioguna da 2017rako kontuan izan dezatela Zabalarra aurrekontuetarako. Ikusten duguna da ikastetxeekin ez dagoela oso komunikazio zuzena, nonbait galdu egiten da; hau konpontzeko ere nonbaitetik hasi beharko litzateke, guk hezkuntza kontseilua eratzea proposatzen genuen.

* 4. Alkate Ordea <u>**Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**</u>: Gure aldeko bozka emango dugu, hitzarmena beharrezkoa ikusten dugulako.

* <u>**Varela Dorrio jaunak (Herriaren Eskubidea)**</u>: Aipatu nahiko genuke badaudela maiatzeko batzordean hitz emandako zenbait kontu, eta haiekin zer gertatuko den ikusteko gaude oraindik. Beteko direla espero dugu, eta hitz emandakoa izango dutela, ahalik eta zerbitzu onena eskaini ahal izateko.

escolar de Zabalarra realizó esta reivindicación, nosotros la asumimos y la situamos entre las prioridades para la elaboración del presupuesto. Se acordó con el gobierno municipal que el convenio de Zabalarra ascendería a 75.000 euros y que compartirían otros 10.000 con Julene Azpeitia, para el mantenimiento de la infraestructura. Desde entonces, lo hemos intentado sin cesar, planteando el tema en casi todas las comisiones y dando varias vueltas por la administración.

Llegó el 8 de septiembre y la situación era bastante mala; es decir, la escuela no tenía dinero y se nos dijo que faltaba ese dinero para aumentar el convenio y que lo estaban buscando. Cobraron el 10 de octubre una gran parte del convenio, pero todavía les faltaba cobrar otros 19.000 euros, más los 10.000 euros, para compartir con Julene Azpeitia.

Estamos en diciembre, han hecho falta dos meses para encontrar ese dinero y al final, ha salido de dos partidas distintas. Quisiéramos destacar que aunque haya llegado tarde, estamos contentos de que se haya podido firmar este convenio y es, también, lo que nos ha trasladado la comunidad de Zabalarra.

Solicitamos a este Pleno que para 2017, tengan a Zabalarra en cuenta para los presupuestos. Lo que vemos es que no hay una comunicación directa con los centros educativos, la comunicación, en algún punto, se pierde; para solucionarlo, habría que empezar por algún sitio y nosotros proponemos formar un consejo de educación.

* 4ª Tnte. de Alcalde <u>**Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**</u>: Votaremos a favor, ya que consideramos el convenio necesario.

* Concejal <u>**Sr. Varela Dorrio (Herriaren Eskubidea)**</u>: Simplemente comentar que aún hay una serie de promesas que se dieron en la comisión de mayo, estamos pendientes de qué pasa con ellas. Esperamos que se cumplan y que puedan tener lo que se les prometió para poder dar el mejor servicio posible.

* 4. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Gogoratu hau aurrekontuetan EH Bildurekin adostu genuela eta gure hitza beteko dugula.

BOZKETA egin ostean.

UDALEKO OSOKO BILKURAK, aho batez, Zabalarra Eskolako Guraso Elkartearen aldeko Hitzarmeneko nominatiboaren diru-kopurua handitzea adostu da, 15.000,- euro gehiagokoa onartu egiten du, 41.3232.48103 aurrekontuko partidarako karguarekin, 81.2410.22707 partidatik datorrena.

**LAU.- HAURTZAINDEGI ETA BI URTEKO GELAKO DIRULAGUNTZAK GEHITZEKO ERREKLAMAZIOA ZUZENTZEKO HELBURUZ PROPOSAMENA. (EUSKARA, KULTURA ETA HEZKUNTZA BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA, 2016KO ABENDUAREN 15EKOA).**

Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordearen 2016ko abenduaren 15eko irizpenaren berri ematen da:

"*2016ko abenduaren 15eko Euskara, Kultura eta Hezkuntza batzordean Haurtzaindegiko eta 2 urteko geletarako diru-laguntza 349,71 eurotan handitzen onartu da. Gastua 61.3300.48101 diru ataletik (Irabazi asmorik gabeko Familia eta Institutzioei – Kultura) egingo da. Diru-laguntza zabaltzea eskatzaile batek egindako erreklamazio baten harira planteatu da.*

*Kontuan hartuta diru-laguntzetan onartutako diru-kopurua 28.000 eurokoa dela, eta azkenean eman beharreko kantitatea hasierako aurreikuspena baino 349,71 euro gehiagokoa dela, proposatzen da Kulturako 4. kapituluan egitea gehiketa hori.*

*Bozketak ondorengo emaitza izan zuen:*

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Recordamos que en los presupuestos acordamos este tema con EH Bildu y cumpliremos nuestra palabra.

PREVIA votación realizada al efecto.

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por unanimidad, acuerda aprobar la ampliación del Convenio nominativo a favor de la AMPA de Zabalarra Eskola, por importe de quince mil (15.000,-) euros, con cargo a la partida presupuestaria 41.3232.48103, proveniente de la partida: 81.2410.22707.

**CUATRO.- PROPUESTA DE INCREMENTO DE LAS SUBVENCIONES DE GUARDERÍA Y AULA DE 2 AÑOS, DE CARA A SUBSANACIÓN DE RECLAMACIÓN. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE EUSKERA, CULTURA Y EDUCACIÓN DE 15 DE DICIEMBRE DE 2016).**

Dada lectura al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Euskera, Cultura y Educación de 15 de Diciembre de 2016, del tenor siguiente:

*"En comisión del área de Euskera, Cultura y Educación del 15 de diciembre de 2016 se acuerda el incremento de las subvenciones de guardería y aula de 2 años desde la partida 61.3300.48101 (A Fam. Inst. sin fines lucro – Cultura) por la cantidad de 349,71 euros de cara a hacer frente a la propuesta de subvención a otorgar debido a la reclamación presentada por uno de los solicitantes.*

*Teniendo en cuenta que la cantidad total existente en las citadas subvenciones se concreta en 28.000 €, y considerando que la cantidad final asignada supera la previsión inicial en la cantidad de 349,71 €, se propone que desde el capítulo 4 de Cultura se acometa este incremento.*

*Se votó con el siguiente resultado:*

- *Alde: Olaia Albizu Gallastegi, Iker Oceja Sobron, Rosa Maria Mintegi Egileor, Jon Andoni del Amo Castro, Mauricio García Martín y Francisco Garate Mintegui.*

- *Abstentzioak: Jorge Varela Dorrio.*

- *Kontra: Bat ere ez.*"

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: 2016ko abenduaren 15eko Euskara, Kultura eta Hezkuntza batzordeak "Haurtzaindegiko eta bi urteko geletarako diru-laguntza" 349,71 euro handitzearen aldeko irizpena hartu zuen. Hasieran diru-laguntza hau 28.000 eurokoa zen, baina eskatzaile batek egindako erreklamazioa ontzat hartzeko esandako batuketa egin beharra dago.

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Agerikoa dirudi aldeko botoa eman beste aukerarik ez dagoela; izan ere, diru-laguntzen eskatzaileek laguntza horiek merezi badituzte eta une jakin batean akatsa gertatu eta kontrako ebazpena eman bada, akatsa argitu ondoren, eta diru-laguntza merezi duela ikusita, hori konpondu egin behar da.

Konponbide hori adostu zuten batzordean, Herriaren Eskubidearen aldetik logikoa den eta burutu ez duten zerbait aipatu zuten: erreklamazioen edo alegazioen aldi jakin batetik burutu gabe dauden onarpenak ikusteko hasierako unean, ez zatekeen banaketarik egin beharko. Izan ere, horren ondorioz, orain zuzendu behar dugun egoera gertatu da.

Etorkizunean horrelakoak gerta daitezkeen egoeretarako eta, Herriaren Eskubideari arrazoi emanda, gure ustez banaketa erreklamazioen ondorengo aldi hori amaitutakoan egin behar da.

* **Varela Dorrio jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Ados gaude proposatutako diru-laguntzarekin. Nire kideak esan duen bezala, eta batzordean ere esan genuen, alegazioen aldi osoa amaitu aurretik pro-

- *A favor: Olaia Albizu Gallastegi, Iker Oceja Sobron, Rosa Maria Mintegi Egileor, Jon Andoni del Amo Castro, Mauricio García Martín y Francisco Garate Mintegui.*

- *Abstenciones: Jorge Varela Dorrio.*

- *En contra: No se dan."*

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: El 15 de diciembre del 2016, la Comisión de Euskera, Cultura y Educación dictaminó a favor de aumentar la "subvención para la guardería y las aulas de los niños de dos años" en 349,71 euros. La subvención, en un principio, era de 28.000 euros, pero a raíz de una reclamación presentada por un solicitante, hay que realizar la mencionada suma.

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Parece evidente que no cabe otra opción que votar a favor, dado que si los solicitantes de las subvenciones son merecedores de ello y en un momento dado se ha producido un error que ha llevado a una resolución, en principio contraria, una vez aclarado el error y viendo que es merecedor de la subvención, pues hay que subsanar esto.

En la comisión que se dictaminó este arreglo, por parte de Herriaren Eskubidea se hizo mención a algo que es lógico y que no se ha llevado a cabo, que es que en el momento inicial de ver las aprobaciones todavía pendientes de un período de reclamaciones o alegaciones, no se debería de haber llevado el reparto que luego nos ha llevado a esta situación que ahora tenemos que arreglar.

Para futuras ocasiones y, dando la razón a Herriaren Eskubidea, consideramos que el reparto debe de hacerse una vez finalizado ese posterior plazo de reclamaciones.

* Concejal **Sr. Varela Dorrio (Herriaren Eskubidea)**: Estamos de acuerdo con la subvención propuesta. Como ha dicho mi compañero, ya lo dijimos en comisión; no se deben de dar estos casos en los cuales se finalice un proceso sin

zesua amaitzen duten kasu horiek ez dute gertatu behar, eta hemendik aurrerako diru-laguntzetarako esandakoa kontuan hartuko dela espero dugu.

* Del Amo Castro jaunak (EH Bildu): Erreklamazioa bidezkoa da, eta, beraz, bidea eman behar zaio; baina, agian, arinegi egin zen ebazpena edo ez zen erreklamazio epea errespetatu. Dena den, diru-laguntza bidezkoa denez, aldeko bozka emango diogu.

BOZKETA egin ostean.

UDALEKO OSOKO BILKURAK aho batez onartu du arestian transkribatutako irizpena, bertan adierazita dagoen eran.

haber finalizado todo el período de alegaciones, y esperamos que para posteriores subvenciones se tenga lo dicho en cuenta.

* Concejal Sr. Del Amo Castro (EH Bildu): La reclamación es justa y por lo tanto, hay que encauzarla, pero tal vez, la resolución se dictó demasiado rápido o no se respetó el plazo de reclamación. Aun y todo, al ser la subvención justa, votaremos a favor.

PREVIA votación realizada al efecto.

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por unanimidad, acuerda aprobar el dictamen anteriormente transcrito, en los términos en el mismo expresados.

**BOST.- ALKATESA AITZIBER IRIGORAS ALBERDI ANDREAK, JOSE MARIA ARRILLAGA LASAGABASTER JAUNAK, (DURANGOKO ALDE ZAHARRA) (DAZ); JUAN LUIS MADARIAGA BALANZATEGUI JAUNAK (SAN FAUSTO ZENTRO SOZIAL ELKARTEA); GORKA PEREZ RODRIGUEZ JAUNAK (GURE SAN FAUSTO BERRIA ELKARTEA); ETA EUGENIO GORROÑO ARAUCO JAUNAK (HERRIA AUZO ELKARTEA) AURKEZTUTAKO MOZIOA, ONDASUN HIGIEZINEN ZERGARI BURUZKOA. (SARRERA ERREGISTROAK: 2016008434, 2016KO ABENDUAREN 15EKOA, ETA 2016008450, 2016KO ABENDUAREN 16KOA, HURRENEZ HURREN).**

* Alkatesa Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV), irakurri egiten du Jose Maria Arrillaga Lasagabaster jaunak (Durangoko Alde Zaharra (DAZ)); Juan Luis Madariaga Balanzategui jaunak (San Fausto Zentro Sozial Elkartea); Gorka Perez Rodriguez jaunak (Gure San Fausto Berria Elkartea); eta Eugenio Gorroño Arauco jaunak (Herria Auzo Elkartea). Sarrera Erregistroak: 2016ko abenduaren 15ekoa, eta 2016008450, 2016ko abenduaren 16koa, hurrenez hurren, eta honako hau dioena:

**CINCO.- MOCIÓN PRESENTADA POR LA ALCALDESA DOÑA AITZIBER IRIGORAS ALBERDI, EN REPRESENTACIÓN DE DON JOSE MARIA ARRILLAGA LASAGABASTER, (ASOCIACIÓN DURANGOKO ALDE ZAHARRA (DAZ); DON JUAN LUIS MADARIAGA BALANZATEGUI (ASOCIACIÓN CENTRO SOCIAL SAN FAUSTO); DON GORKA PÉREZ RODRÍGUEZ, (ASOCIACIÓN GURE SAN FAUSTO BERRIA); Y, DON EUGENIO GORROÑO ARAUCO (ASOCIACIÓN DE VECINOS HERRIA), RELATIVA AL IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES. (REGISTROS DE ENTRADA NºS. 2016008434, DE 15 DE DICIEMBRE DE 2016), Y 2016008450, DE 16 DE DICIEMBRE DE 2016, RESPECTIVAMENTE.**

* La Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV), da lectura a la Moción presentada por Don Jose Maria Arrillaga Lasagabaster (Asociación Durangoko Alde Zaharra (DAZ)); Don Juan Luis Madariaga Balanzategui (Asociación Centro Social San Fausto); Don Gorka Pérez Rodríguez (Asociación Gure San Fausto Berria); y Don Eugenio Gorroño Arauco (Asociación de Vecinos Herria), con Registros de Entrada nºs. 2016008434, de 15 de Diciembre de 2016, y 2016008450, de 16 de Diciembre de 2016, respectivamente, del tenor literal siguiente:

*"40 urte eta gero, Bizkaiko Foru Aldundiak katastro-balioak berrikustea erabaki du. Katastro-balioa Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren oinarria denez, balio berriek bete-betean eragin diote zergarik garrantzitsuenetarikoa den horri; izan ere, praktikan herritar guztiei eragiten die zerga horrek, eta diru-kopuru handiak izaten dira. Kasu honetan, Durangon, zenbateko horiek akats nabarmenekin kalkulatu dituzte.*

*Horrela, ez hankarik ez bururik ez duten balorazioek burukomin handiak eragin dizkiete Durangoko herritar askori. Katastroko balio berriak OHZ berriaren oinarri izan dira, eta foru aldundiak Durangoko herritarrei zenbateko horien berri eman dienean, ikusi dugu zerga hori neurri barik eta justifikazio barik hazi dela kasu batzuetan.*

*Balorazio berriko gauzarik harrigarriena da balio-txosten bat egin zela Durangoko balio katastralak berrikusteko, eta txosten hori Bizkaiko Foru Aldundiak egin zuela kaltetutako udalerriekin elkarlanean, parte-hartze organoen bidez -izan ere, horrela arautzen du katastroa erregulatzen duen foru arauak eta bere garapenerako araudiak (Bizkaiko Lurralde Historikoko higiezinen katastroko 3/2016 Foru Araua eta Bizkaiko higiezinen katastroko araudia)-. Ez dakigu zein izan den Durangoko Udalaren ordezkaritza ponentzia horretan, baina argi dago ez zituela ezagutzen herriko higiezinen merkatuko balioak.*

*Bestela, ezin dugu ulertu balio-txosten horretan egindako zonifikazioa eta Durangoko zonalde bakoitzari metro karratuko jarritako balioa. Zonifikazio horrek eta metro karratuko jarritako balioek zinez datu harrigarriak eman dizkigute. Esaterako, Durangoko erdigunean, Ezkurdin, zerbitzu publiko eta pribatu gehien dituen inguruan (osasun zerbitzuak, ikastetxeak, epaitegia, udala, bankuak....), eremu hurbilean metro karratuak 749,78 euro balio ditu. Bestalde, zerbitzu falta handia duten auzuneetan, San Fauston eta Aramotzen esaterako, metro karratuak 869,81 euro balio ditu, eta Alde Zaharrean, 1.010,82 euro. Argi dago kalkulu hori ez dela zuzena, eta ez daukala justifikaziorik. Ildo*

*"40 años después la Diputación Foral de Bizkaia ha decidido revisar los valores catastrales. De esta manera nos encontramos ante unos nuevos valores catastrales que son la base del Impuesto de Bienes Inmuebles, uno de los impuestos más importantes porque afecta a la práctica totalidad de la ciudadanía y por el montante que supone, que en el caso de Durango han sido calculados con errores de bulto.*

*De esta manera, unas valoraciones hechas sin pies ni cabeza, han provocado grandes quebraderos de cabeza a muchos vecinos y vecinas de Durango. Ya que esos valores catastrales nuevos, han sido la base de un nuevo impuesto del IBI cuyo cálculo está notificando la Diputación a la ciudadanía de Durango, con incrementos desproporcionados e injustificados en algunos casos.*

*Lo más sorprendente de esa nueva valoración es que según la propia norma foral que regula el catastro, y su normativa de desarrollo, es decir la Norma Foral 3/2016 del catastro inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia y el Reglamento del catastro inmobiliario de Bizkaia; se realizó una ponencia de valores a la hora de revisar los valores catastrales de Durango, una ponencia elaborada por la Diputación Foral de Bizkaia en colaboración con los Municipios afectados, a través del órgano de participación. Desconocemos cual ha sido la representación del ayuntamiento de Durango en esa ponencia, pero está claro que desconocía los valores del mercado inmobiliario en el municipio.*

*Ya que de otra manera no se explica la zonificación que realizo la citada ponencia de valores y el valor €/m2 que adjudicó a cada zona de Durango. Esa zonificación y los valores por metro cuadrado adjudicados nos deja datos verdaderamente sorprendentes. De esta manera el metro cuadrado en la zona céntrica por excelencia de Durango, Ezkurdi, zona que cuenta con la mayoría de los servicios públicos y privados, tales como centro de salud, colegios, juzgado, ayuntamiento, bancos, etc, en un radio cercano, se valora en 749,78 €/m2, mientras que zonas con una carencia importante de servicios como San Fausto o Aramotz se valoran en 869,81 €/m2 y en el Casco Histórico 1010,82 €/m2. Una valoración a todas luces errónea y que no tiene justificación alguna. De esta manera, la norma foral antes citada en su artículo 24, a la hora de*

*horretatik, aipatutako foru arauak, 24.artikuluan, ondasun higiezinen balio katastrala zehazteko irizpide hauek ezartzen ditu:*

*1. Ondasun higiezinen katastro-balioa lurzoruaren balioak eta eraikinenak osatuko dute.*

*2. Katastro-balioa zehazteko irizpide hauek hartuko dira kontuan:*

*a) Higiezinaren kokalekua, lurzoruari eragiten dioten hirigintzako inguruabarrak eta ekoizpenerako duen gaitasuna.*

*b) Eraikinen exekuzio materialeko kostua, kontrataren mozkinak, ordainsariak eta eraikuntza kargatzen duten tributuak, eraikinaren erabilera, kalitatea eta antzinatasuna.*

*c) Ekoizpen-gastuak eta sustapeneko enpresa-jarduerearen mozkinak, edo, halako sustapenik ez badago, kasu horri dagozkion bestelako faktoreak.*

*d) Merkatuko inguruabarrak eta balioak.*

*e) Erreglamenduz zehazten den beste edozein faktore esanguratsu.*

*f) Bai eta ondasun higiezinen azalera ere.*

*3. Ondasun higiezinen balioa zehazteko erregelamenduz zehazten diren arau teknikoek jaso egin behar dituzte, arestian azaldutako irizpideekin bat eta ondasun higiezinei eragiten dieten ezaugarri intrintseko eta estrintsekoen arabera, haien katastro-balioa zehaztea ahalbidetzen duten kontzeptuak, erregelak eta gainerako faktoreak.*

*Kokapena, hirigintza baldintzak eta merkatuko balioak kontuan hartu behar badira, ezinezkoa da Ezkurdi inguruko oinarrizko balioa Aramotzekoa, San Faustokoa eta Alde Zaharrekoa baino baxuagoa izatea; ez da akats kontua, ezinezkoa da. Hori gutxi balitz, arau foralak 27.artikuluan dio balio-txostenak onartu aurretik udalak haiei buruzko txosten ez-loteslea eman behar dutela, hamabost egun naturaleko epean.*

*establecer los criterios para determinar el valor catastral de los bienes inmuebles, recoge las siguientes:*

*1. El valor catastral de los bienes inmuebles estará integrado por el valor del suelo y el de las construcciones.*

*2. Para la determinación del valor catastral se tendrán en cuenta los siguientes criterios:*

*a) La localización del inmueble, las circunstancias urbanísticas que afecten al suelo y su aptitud para la producción.*

*b) El coste de ejecución material de las construcciones, los beneficios de la contrata, honorarios profesionales y tributos que gravan la construcción, el uso, la calidad y la antigüedad edificatoria.*

*c) Los gastos de producción y beneficios de la actividad empresarial de promoción, o los factores que correspondan en los supuestos de inexistencia de la citada promoción.*

*d) Las circunstancias y valores del mercado.*

*e) Cualquier otro factor relevante que reglamentariamente se determine.*

*f) Así como la superficie de los bienes inmuebles.*

*3. Las normas técnicas para la determinación del valor de los bienes inmuebles que se determinen reglamentariamente recogerán los conceptos, reglas y restantes factores que, de acuerdo con los criterios anteriormente expuestos y en función de las características intrínsecas y extrínsecas que afecten a los bienes inmuebles, permitan determinar su valor catastral.*

*Si la localización, las condiciones urbanísticas y/o los valores de mercado deben de tenerse en cuanta no es posible que el valor básico de la zona de Ezkurdi por ejemplo sea menor que la de las zonas de Aramotz, San Fausto o Casco Histórico, no es que hay algún error, es que directamente es imposible. Pero para mayor despropósito, la norma foral en su artículo 27 también establece que antes de su aprobación, las ponencias de valores se someterán de forma preceptiva a informe no vinculante*

*Bada, idatzi hau sinatzen dugunok jakin ahal izan dugu udalaren txostenak ez ziola eragozpenik ipini balio-txostenari.*

*Gauzak horrela, eta Aramotzeko, San Faustoko eta Alde Zaharreko ondasun higiezinen titularrei eragiten dien bidegabekeria horren aurrean, idatzi honekin bat egiten dugunok uste dugu aipatutako arau foraleko beste artikulu bati heldu behar diogula, katastro-balioak aldatzeko prozedurei buruzko 28.artikuluari:*

1. ***Hirigintza-plangintza edo bestelako inguruabarren bat dela bide argi geratzen bada funtsezko diferentzia dagoela udalerriko ondasun higiezin gehienen katastro-balioaren eta haien merkatu-balioaren artean, katastro-balioak aldatuko dira, ofizioz zein kasuan kasuko toki-erakundeak eskatuta.*** *Aldatu beharra dagoenean, foru arau honen 27.artikuluan ezarritako prozedura berari jarraituko zaio; horretarako, balio-txosten berriak prestatu eta onetsi beharko dira.*

2. ***Balio-diferentziak udalerriko alde edo eremu batean zein batzuetan soilik agertzen badira, ez da egongo balio-txosten berriak onetsi beharrik.*** *Hala gertatzen denean, lehendik dauden balio-txostenak aldatuko dira, eta udal interesdunek haiei buruzko txosten ezloteslea egin beharko dute, foru arau honen 27.artikuluko 3.zenbakian ezarri bezala.*

*Horregatik guztiagatik, honako hau eskatzen diogu Durangoko Udalari:*

*Aldundiari eskatu diezaiola, idatziz eta berariaz, egin dezala Durangoko katastro-balioen txosten berri bat -Bizkaiko lurralde historikoko higiezinen katastrorako 3/2016 Foru Arauak 28.artikuluan zehazten duena beteta-, eta bereziki aztertu ditzala Aramotz, San Fausto eta Alde Zaharreko balioak."*

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

*del Ayuntamiento interesado, quien deberá evacuarlo en el plazo de quince días naturales. Pues bien, quienes suscriben este escrito han podido conocer que el informe del ayuntamiento no puso pega alguna a la ponencia de valores.*

*Llegados a este punto y ante el agravio discriminatorio que se da para los titulares de bienes inmuebles en las zonas de Aramotz, San Fausto y Casco Histórico, quienes suscribimos este escrito creemos que es necesario invocar otro artículo de la mencionada norma foral, en concreto el artículo 28, que a la hora de regular la modificación de los valores catastrales recoge que:*

1. ***Los valores catastrales se modificarán, de oficio o a Instancia de la entidad local correspondiente, cuando el planeamiento urbanístico u otras circunstancias pongan de manifiesto diferencias sustanciales entre aquéllos y los valores de mercado de la mayoría de los bienes inmuebles.*** *En este caso se seguirá el mismo procedimiento establecido en el artículo 27 de esta Norma Foral, siendo necesarias la elaboración y aprobación de nuevas ponencias de valores.*

2. ***Cuando aquellas diferencias sólo aparezcan en alguna o varias zonas o ámbitos de un término municipal, no será necesaria la aprobación de nuevas ponencias.*** *En estos casos se procederá a la variación de las ponencias existentes, que deberán ser sometidas al informe no vinculante del Ayuntamiento o Ayuntamientos afectados en los términos establecidos en el apartado 3 del articulo 27 de esta Norma Foral.*

*Por todo ello solicitamos al ayuntamiento de Durango:*

*A solicitar por escrito y de manera expresa, mediante invocación del artículo 28 de la Norma Foral 3/2016 del catastro inmobiliario foral del territorio histórico de Bizkaia, a la Diputación, a que realice una nueva ponencia de valores catastrales para el municipio de Durango, con especial hincapié en la revisión de los valores de Aramotz, San Fausto y Casco Histórico."*

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Entzun berri ditudan baieztapenak errealitatearen araberakoak dira. Zalantzarik gabe.

Ez dakit arrazoi ematen diedan Durangoko Alde Zaharra Elkarteari, San Fausto Zentro Soziala Elkarteari, Gure San Fausto Berria Elkarteari eta Herria Auzo Elkarteari edo haiek ematen dioten arrazoia gai honen inguruan behin eta berriz egin ditugun eztabaidetan Alderdi Popularrak adierazi duenari.

Batera edo bestera, berdin du. Gertatutakoa lau elkarte horiek eta Durangoko herritar gehienek kontatu diguten bezalaxe da. Hori horrela da, norbaiti min egiten badio ere. Eta ez da horrela utzi behar.

* 1. Alkate Ordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Gure aldetik, abstentzioaren alde egingo dugula aurreratzen dut. Ez gaude ados katastro-balioen txosten berri bat egitearekin, baina uste dugu berrikusi egin behar dela, eta gure konpromisoa horixe da, ondo ez dauden balio katastral horiek berrikustea. Horregatik abstenituko gara.

* **Varela Dorrio jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Berriz ere kontu berarekin gatoz osoko bilkurara. Oraingoan elkarteek ekarri digute arazoa balioen txostenarekin, eta ozen eta argi esan digute koherentziarik gabekoa eta bidegabea dela. Elkarteek ordezkatzen ez dituzten bizilagun asko daude eta gauza bera pentsatzen dute.

Adibide asko eman ditzakegu, baina bizilagunak hemen izatea da, nire ustez, gauzak ondo ez daudenaren adibide garbiena. Prozesua beti informazio-gabeziarekin bizi izan dugu, gardentasun-gabezia nabarmenarekin.

Aldundiko informazio-bulegoa egokitu zen, baina bulego horrek gauza bakarrerako balio izan du: bizilagun askok, erantzunik lortu gabe, bulegoaren eta udalaren artean joan-etorrian denbora alferrik galtzeko. Gutun hieroglifikoekin ere jende asko etorri da eta inork ez du jakin argitzen.

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Acabo de escuchar una serie de afirmaciones que se ajustan a la realidad. Sin duda.

No sé si decir que doy la razón a la Asociación Durangoko Alde Zaharra, a la Asociación Centro Social San Fausto, a la Asociación Gure San Fausto Berria y a la Asociación de Vecinos Herria, o que ellos vienen dando la razón a lo que el Partido Popular viene manifestando a lo largo de los diferentes debates sucedidos sobre el asunto que nos ocupa.

Tanto monta, monta tanto... Lo sucedido es tal y como nos lo cuentan estas cuatro asociaciones y gran parte del resto de la ciudadanía duranguesa. Esto es así, le duela a quien le duela. Y no debe quedar así.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Por nuestra parte, adelantar el voto que va a ser la abstención. No estamos de acuerdo con que se lleve a cabo una nueva ponencia de los valores catastrales aunque sí creemos necesario que se tiene que dar una revisión, y nuestro compromiso va a consistir en eso; en que se realice una revisión de aquellos valores catastrales que no están bien. Por ese motivo nos vamos a abstener.

* Concejal **Sr. Varela Dorrio (Herriaren Eskubidea)**: Volvemos otra vez con el mismo tema al pleno. Esta vez son las asociaciones quienes nos trasladan este problema con la ponencia de valores, y nos dicen alto y claro que es incoherente e injusta. Hay muchos vecinos que no están representados por estas asociaciones y que también piensan lo mismo.

Podríamos dar muchos ejemplos, pero que hoy estén aquí los vecinos y vecinas creo que es el ejemplo más claro de que esto no está bien. Este proceso siempre lo hemos vivido con falta de información, falta de transparencia notable.

Se habilitó una oficina de información de la Diputación, sin embargo esta oficina solo ha servido para que muchos vecinos y vecinas hayan malgastado su tiempo dando vueltas entre la oficina y el ayuntamiento sin obtener respuesta. También ha venido mucha gente con cartas jeroglíficas y nadie ha sabido descifrarlas.

Aldundiak duen eta batzordeetan ere dagoen informazio-gabezia horren aurrean, guk mahaiak kalera atera nahi izan ditugu, kartelak jarri ditugu atarietan, bilerak egin ditugu bizilagunekin zer gertatzen ari zen jakinarazteko, herritarrekin lan egin dugu eta gaur hau hona ekartzeko izan duten ausardia eskertu behar diegu. Orain arte kudeatzeko izan dugun moduak ekarri gaitu hona, 5 osoko bilkura 7 hilabetetan, eta OHZ onartu eta hurrengo egunean bertan entzun dugu gaizki zegoela. Hala ere, azaroaren 11tik ez dugu gaia lantzeko batzorde bakar bat ere izan.

Ante esta falta de información por parte de la Diputación y en las propias comisiones, nosotros hemos querido sacar las mesas a la calle, hemos colocado carteles en los portales, hemos hecho reuniones con vecinos y vecinas para informarles de lo que estaba pasando; hemos hecho un trabajo con la ciudadanía y tenemos que agradecer la valentía que han tenido para traer hoy esto aquí. Esta manera de gestionar que hemos tenido hasta ahora nos ha llevado a esta situación; 5 plenos en 7 meses, e incluso al día siguiente de aprobar un IBI hemos llagado a escuchar que estaba mal. Sin embargo desde el 11 de noviembre no hemos tenido ni una sola comisión para tratar este tema.

Agian pentsamoldez aldatzeko garaia da, gauzak beste nolabait egiteko garaia, orain arte arazoari adabakiak jarri besterik ez baitugu egin, baina arazoak hor jarraitzen du. Gaur hori zuzentzeko beste aukera bat dugu, eta espero dugu gaur entzungo dela Durangoko bizilagunek ekarri diguten eskaera.

Quizás sea el momento de cambiar de mentalidad, de hacer las cosas de otra manera porque hasta ahora lo único que hemos hecho ha sido poner parches sobre el problema, pero el problema sigue aquí. Hoy tenemos una nueva oportunidad para corregir esto, y esperamos que esta vez sí que se escuche esta petición que nos traen los vecinos y vecinas de Durango.

* <u>**Maeztu Perez jaunak (EH Bildu)**</u>: Mozioak argi uzten du zer eskatzen den, argi dago sekulako akatsak egon direla, datuak hor daude, ez da durangarra izan behar konturatzeko ezinezkoa dela metro karratua merkeago izatea Ezkurdin, Aramotzen edo San Fauston baino. Ez dauka inolako zentzurik 749 euro balio izatea Ezkurdin, eta mila baino gehiago Santa Anan edo Alde Zaharreko etxebizitzetan. Eta hau guztia egin da inolako azalpenik eman gabe.

* Concejal <u>**Sr. Maeztu Perez (EH Bildu)**</u>: La moción indica claramente lo que se pide, está claro que ha habido fallos enormes, ahí están los datos. No hace falta ser de Durango para darse cuenta de que es imposible que el metro cuadrado sea más barato en Ezkurdi que en Aramotz o San Fausto. No tiene ningún sentido que su precio sea de 749 euros en Ezkurdi y más de mil en Santa Ana o en las viviendas del Casco Viejo. Y todo se ha hecho sin proporcionar ninguna explicación.

Gaur egun ez dakigu Foru Aldundiak zer balore datu edo merkatu datu erabili dituen balorazio horiek egiterako orduan. Dakiguna da balorazio horiek, gaizki egindakoak, ondasun higiezinen zergaren oinarri direla. Eta lurzoru horren metro koadroaren balorazio okerraren eraginez, Aramotz, San Fausto edo Durangoko alde zaharreko auzoetan, besteak beste, bizilagunek jakinarazpena jaso dute etxeagatik ordaindu beharrekoa % 60 igotzen zela abisatuz, eta kasu bakoitzean % 100 errebalorizatzen zen daturik izan gabe, hori zergatik gertatzen zen azalpenik eman gabe.

A día de hoy no sabemos qué datos de valor o de mercado ha utilizado la Diputación Foral para realizar dichas valoraciones. Lo que sí sabemos es que esas valoraciones, que están mal hechas, son la base del impuesto de bienes inmuebles. Y una valoración del metro cuadrado de ese suelo mal hecha supone que en barrios como Aramotz, San Fausto o el casco viejo de Durango los vecinos hayan recibido una notificación de que el impuesto que debían de pagar por su casa subía un 60% y en algunos casos se revalorizaba un 100% sin tener ningún dato, ninguna explicación sobre a que respondía ese hecho.

Tamalez, katastroa eta ondasun higiezinen baloraziorako arau teknikoak arautzen dituen foru-araudiaren aditu bihurtu behar izan dugu, ez balio

Nos hemos tenido que hacer expertos, por desgracia, de la normativa foral que regula tanto el catastro como las normas técnicas de

horietara, gutxi gorabehera, nola iritsi diren ulertzeko (gaur egun oraindik ere ez baitakigu nolatan den merkeagoa metro karratua Ezkurdin aipatutako beste eremuetan baino), baizik eta zentzugabekeria honetara iristeko prozesua zein izan den jakiteko. Eta prozesua hau izan da:

- Balioen txostena, katastro balioen datuak berrogei urtean ukitu gabe izan ondoren.

- Balioen txostenean, Foru-Arauaren arabera, aldundia partaide zen udalaren ordezkariekin batera (bere garaian eskatu genuen udalaren jarrera zein zen jakitea eta ez dakigu).

- Balio txosten horrek egindako dokumentu bat, udalari pasatu zitzaion. Udalak epe bat zuen balioen txostenari buruzko txostena egiteko (hemen badakigu udaletik ateratako txostenek ez ziotela eragozpenik jarri balorazioari; erantzuteko bigarren puntua zuen hori).

- Eta azkenik, datu horiek ematen dituen balioen txostena dugu.

Hori ekainean argitaratu zen eta behin betikoa izan zen, ez zen eragozpenik izan udalaren aldetik, eta orain bide bakarra dago, eta mozioan aipatutakoa da; aldundiak berak ofizioz balio horiek berrikustea erabakitzea, edo eragina jasandako udalak eskatzea. Eta bizilagun batzuek eskatu digute bide hori egiteko, aldundiari eska diezaiogula balioak alda ditzan, foru-arauak berak dioen bezala, ondasunen kokapena edo merkatuko balioak baldin badira jarraitu beharreko irizpideak, argi dago Durangon akatsa egin dela.

Beraz, hurrengo 40 urtetan ez badugu nahi txarto eginda dagoen balorazio batekin jarraitzea, derrigortuta gaude foru Aldundiari eskatzera balorazio hori begiratzea.

Nik uste dut gaurko kontua ez dela alde edo kontra gauden; txarto dago, eta diputazioari egindako balorazioa berriz aztertzeko eskatzea baino ez zaigu geratzen.

valoración de bienes inmuebles, para entender, más o menos, no cómo han llegado a esos valores -porque a día de hoy seguimos sin saber cómo el metro cuadrado es más barato en Ezkurdi que en las zonas mencionadas- sino cuál ha sido el proceso para hacer este disparate. Y el proceso ha sido:

- Una ponencia de valores cuarenta años después de tener sin tocar los datos de los valores catastrales.

- Una ponencia de valores en la que según la norma foral participa la Diputación con representantes del Ayuntamiento (en su día pedimos saber cuál había sido la postura del Ayuntamiento y no lo sabemos).

- Un informe que hace esa ponencia de valores que se le pasa al Ayuntamiento que tiene un plazo para realizar un informe sobre esa ponencia de valores (aquí sí sabemos que los informes que se evacuaron desde este Ayuntamiento no pusieron ninguna pega a esa valoración, segundo hecho por el que tenía que responder).

- Y finalmente, tenemos una ponencia de valores que da estos datos.

Esto se publicó por junio y fue definitivo, no hubo pegas por parte del Ayuntamiento, y ahora solo queda un camino, y es el que se dice en la moción; que la propia Diputación por oficio decida revisar esos valores, o que sea el ayuntamiento afectado quien lo pida. Y una serie de vecinos y vecinas nos está pidiendo que hagamos ese camino, que le pidamos a la Diputación que cambie esos valores, porque como dice la propia norma foral, si los criterios que hay que seguir son la ubicación de los bienes o los valores del mercado, está claro ha fallado en Durango.

Por lo tanto, si no queremos continuar con una valoración que está mal realizada en los próximos 40 años, tenemos la obligación de solicitar a la Diputación que revise la valoración.

Yo creo que la cuestión, hoy, no es si estamos a favor o en contra; está mal, y no nos queda más que solicitar a la Diputación que revise la valoración realizada.

Eztabaida amaitu ondoren, Presidenteak gaia bozkatzea proposatu du. Emaitza hauxe:

- Aldeko botoak: HAMAIKA, 7 Euskal Herria Bildu, 3 Herriaren Eskubidea eta 1 Alderdi Popularra.
- Kontrako botoak: BAT ERE EZ.
- Abstentzioak: HAMAR, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea eta 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoekin, **ONARTU EGITEN DU** goian zehazturiko mozioaren testua.

Finalizado el debate, la Presidencia somete el asunto a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

- Votos a favor: ONCE, 7 de Euskal Herria Bildu, 3 de Herriaren Eskubidea y 1 del Partido Popular.
- Votos en contra: NINGUNO.
- Abstenciones: DIEZ, 8 del Partido Nacionalista Vasco y 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra.

En su vista,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, **APRUEBA** el texto de la Moción anteriormente transcrita.

**SEI.- EUSKAL HERRIA BILDU UDAL TALDEAREN MOZIOA, GARRAIO PUBLIKOARI BURUZKOA. (SARRERA ERREGISTROA 2016008445, 2016KO ABENDUAREN 16KOA).**

Euskal Herria Bildu Taldeko Bozeramaileak izenpeturiko mozioa, garraio publikoari buruzkoa. Sarrera Erregistroa: 2016008445, 2016ko abenduaren 16koa, eta honako hau dioena:

"*Behin baino gehiagotan ekarri ditugu eztabaidagai garraioari buruzko proposamenak: dauden autobus lineak hobeto aprobetxatzeko parada berriak, autobus geltokia hobetzeko aterpe eta zebra bide gehiagoren beharra, ur azpiko tren geltokia estaltzeko eskaera, unibertsitaterako autobusak egokitzea... Garraio publiko eta kolektiboaren aldeko apostua argi daukagu: jasangarria eta unibertsala da, edozeinek erabil dezake, adin muga edo ibilgailu propio bat izan barik. Herri justuago, jasangarriago eta osasuntsuago baten aldeko apostua da. Horretarako, garraio duina eta erosoa izan behar da, eta hori bultzatu nahi dugu.*

**SEIS.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL EUSKAL HERRIA BILDU, RELATIVA AL TRANSPORTE PÚBLICO. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2016008445, DE 16 DE DICIEMBRE DE 2016).**

Dada cuenta de la Moción presentada por la representación del Grupo Municipal Euskal Herria Bildu, relativa al transporte público, con Registro de Entrada nº 2016008445 de 16 de Diciembre de 2016, del tenor literal siguiente:

"*En más de una ocasión hemos traído a debate propuestas sobre el transporte: nuevas paradas para aprovechar mejor las líneas de autobús existentes; la necesidad de mejorar las cubiertas de las paradas de autobús y crear más pasos de cebra; cubrir las escaleras de la estación de tren subterránea; adecuar los autobuses para ir a la universidad... Nuestra apuesta a favor del transporte público y colectivo es clara: este medio es sostenible y universal, lo puede utilizar cualquiera, sin ningún límite de edad y sin tener vehículo propio. Apostamos a favor de un pueblo más justo, sostenible y saludable. Para ello, necesitamos un transporte digno y cómodo, y tenemos que impulsar ese modelo.*

*Durango, eskualde burua izanik, eta bere kokapen geografikoa dela eta, puntu inportantea da garraiobidei dagokienez. Bizkaiarekiko loturen estaldura maila ona da, hobetzeko proposamenak aurkeztu baditugu ere. Baina Durangok gertu ditu beste bi herrialde: Araba eta, batez ere, Gipuzkoa. Eta horretan Aldundiek askotan Taifa erreinuak bezala jokatu dute, herrialdeen arteko konexioak garatu barik utziz. Zentzu horretan, linea batzuk Arrasateraino luzatzea lortu da, adibidez, eta luzea izan da Gasteizerako autobus linea duin bat aldarrikatzeko borroka.*

*Durango eta Donostiaren arteko lotura, aldiz, ez da hobetu. Izan ere, kontrakoa gertatu da: bere momentuan egon zen tren zuzen bat (Eibarren eta Zarautzen bakarrik gelditzen zena) baina desagertu da. Gaur egun, Durangotik Donostiara joateko parada anitzeko trena edo autobusa (azken hau ordutegi murriztuan) hartu behar da, patzientzia handiko garraioa, bidaiak bi ordu inguru irauten du eta. Badago Durangotik zuzenean Ibaetako kanpusera doan autobus zerbitzu bat, bi hobe esanda: 6:35etan Durangotik joateko eta 14:30etan Ibaetatik bueltan. Ohiko zerbitzuak Ermua eta Eibarretik izaten dira.*

1. *Durangoko osoko bilkurak Euskotreni Durango-Donostia lotura zuzeneko trena berrezkuratzea eskatzen dio.*

2. *Durangoko osoko bilkurak Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundiei Durango eta Donostiaren arteko autobus zerbitzu (sasi)zuzena ezartzeko ikerketa egitea eskatzen diete, beharrezko akordioak hartuz. Izan ere, Ermua eta Eibarretik abiatzen diren zenbait zerbitzu Durangotik hastea izan daiteke aukera bat*."

*Siendo cabeza de comarca y debido a su situación geográfica, Durango es un punto importante en cuanto a transporte. Disponemos de un buen nivel de cobertura de conexión con Bizkaia (aunque hemos realizado propuestas de mejora). Aún así, Durango está cerca de otros dos territorios: Araba, y, sobre todo Gipuzkoa. Y en este ámbito, las diputaciones han actuado como el reino de Taifa, dejando sin desarrollar las conexiones entre los territorios. En ese sentido, se ha conseguido que algunas líneas se expandan hasta Arrasate, y la reivindicación de una línea de autobús digna para ir a Gasteiz ha sido una larga lucha.*

*Sin embargo, la conexión entre Durango y Donostia no ha mejorado. De hecho, ha sucedido lo contrario: en su momento existía un tren largo que paraba sólo en Eibar y Zarautz, pero ha desaparecido. Hoy en día, para ir de Durango a Donostia disponemos de trenes con muchas paradas y el autobús que tiene un horario reducido. Son trayectos en los que se necesita mucha paciencia, ya que el viaje dura más o menos dos horas. Existe un servicio para ir directo desde Durango al campus de Ibaeta. Mejor dicho, dos: a las 06:35 un autobús sale de Durango a Ibaeta, y a las 14:30 sale el de vuelta desde Ibaeta. Los servicios habituales suelen ser desde Ermua y Eibar.*

1. *El pleno del Ayuntamiento de Durango solicita a Euskotren que recupere el tren de conexión directa Durango-Donostia.*

2. *El pleno de Ayuntamiento de Durango solicita a las Diputaciones Forales de Gipuzkoa y Bizkaia que realicen un estudio para ofrecer un servicio de autobús directo (o semidirecto) que aúna Durango y Donostia, y lleguen a los acuerdos necesarios. Una posibilidad puede ser que algunos servicios que salen de Ermua y Eibar partan de Durango*."

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* **Del Amo Castro jaunak (EH Bildu)**: Garraio publikoaren inguruko mozio bat ekarri dugu, beste hainbatetan egin dugun bezala. Mozio hauek ekartzen ditugu Osoko Bilkurara garraio publikoa edo kolektiboa bultzatzeko. Gehienak Bizkaiko

* Concejal **Sr. Del Amo Castro (EH Bildu)**: Traemos una moción sobre el transporte público como hemos hechos otras veces. Traemos estas mociones al Pleno para impulsar el transporte público o colectivo. La mayoría

Foru Aldundiari edo Eusko Tren-i egindako eskaerak dira.

Esan behar da Bizkaian garraio sistema publikoa ez dagoela hain txarto, baina hobetu daiteke gaur egun dauden lineak aprobetxatuz. Bat ere ondo ez daudena dira beste lurraldeekiko loturak, eta zentzu horretan, askotan aldundi bakoitzak egiten du bere lurralde antolaketa eta garraio sistema, baina beste lurraldeekiko lotura airean geratzen da.

Adibidez, Barik txartela erabilita sartu ahal zara Durangoko trenean, baina ezin zara Donostian irten, nahiz eta linea bera izan; beraz, koordinaziolan hori ez da egiten. Kubritu barik geratzen den linea bat da Durangotik Donostiara doana; lehen bazegoen tren zuzen bat Bilbao-Bolueta-Durango-Eibar-Zarautz-Donostia baina Eusko Trenek kendu egin zuen, beraz, ez dago lotura zuzenik Durangotik Donostiara joateko. Badago autobus zerbitzu bat Durangotik Ibaetako campusera doana, baina zerbitzu bakarra dago goizeko 06:30ean joateko eta 14:30ean bueltatzeko. Bestela, trena hartu behar da, eta hemendik Donostiaraino joatea bi orduko bidaia da.

Beraz, bi gauza eskatzen ditugu mozio honetan; bata, lehen zegoen tren zuzen hori berreskuratzea eta, bestea, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiei eskatzea Durango eta Donostiaren arteko autobus zerbitzu "sasi-zuzena" ezartzeko ikerketa egitea, beharrezko akordioak hartuz. Adibide moduan, Eibar eta Ermutik badago autobus-zerbitzu bat erdi zuzena Donostiara, eta bide bat izan daiteke zerbitzu hori Durangotik hastea.

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Durango munduaren erdigunea ez den arren, ezta Euskadiren erdigunea ere, garrantzitsua da Durango, oso garrantzitsua. Beraz, Durangoko herritarren onurarako izan daitekeen guztia ere halaxe da.

Eta agerikoa da zuek garraio publikoarekin kezkatzen zaretela, baina, noski, ez zarete bakarrak, Alderdi Popularra ere bai.

Gertatzen dena da guk erakunde eskudunetan, batez ere BFAn, aurkezten ditugun proposamenen

son solicitudes realizadas a la Diputación Foral de Bizkaia y a Eusko Tren.

Hay que decir que en Bizkaia, el sistema de transporte público no está tan mal, pero se puede mejorar aprovechando las líneas existentes. Lo que no están nada bien son los enlaces con el resto de territorios y en ese sentido, cada diputación, muchas veces, realiza su ordenación del territorio y su sistema de transporte, pero el enlace con los demás territorios queda en el aire.

Por ejemplo, puedes utilizar el tren de Durango con la tarjeta Barik, pero no puedes salir en San Sebastián aunque la línea sea la misma; por lo tanto, no se hace esa labor de coordinación. Una de las líneas que se quedan sin cobertura es la que va desde Durango a San Sebastián. Antes sí había un tren directo Bilbao-Bolueta-Durango-Eibar-Zarautz-Donostia, pero Eusko Tren lo eliminó, por lo que no hay un enlace directo para ir de Durango a San Sebastián. Tenemos un servicio de autobús desde Durango al campus de Ibaeta, pero hay únicamente un servicio: a las 06:30 de ida y a las 14:30 de vuelta. La otra opción es coger el tren y el viaje desde aquí has San Sebastián dura dos horas.

Por lo tanto, pedimos dos cosas a través de esta moción; la primera, recuperar el tren directo que teníamos antes y la segunda, solicitar a las Diputaciones Forales de Bizkaia y Gipuzkoa que hagan un estudio para establecer un servicio de autobús "semi-directo" entre Durango y San Sebastián y se busquen los acuerdos correspondientes. Como ejemplo, existe un servicio de autobús semi-directo que va desde Eibar y Ermua hasta San Sebastián, y puede ser una opción que dicho servicio comience en Durango.

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Aunque Durango no es el centro del mundo ni el centro de Euskadi, Durango es importante, muy importante. Por ende, todo lo que pueda beneficiar a la ciudadanía duranguesa, lo es.

Y es público y notorio que ustedes se preocupan por el transporte público pero, desde luego, no son los únicos; el Partido Popular también.

Lo que sucede es que las propuestas que nosotros presentamos en las instituciones compe-

helburua Bizkaiko herritar guztien onura izaten dela, eta egokitzen denean, herri edo eremu jakinen bateko herritarrena, eta hor daude erdietsitako lorpenak. Xehetasun gehiago nahi izanez gero, zuen talde batzarkideak galde diezaiola Alderdi Popularraren talde batzarkideari.

Eta guztien onura bilatzen dugula esaten dugu; izan ere, zerbitzu batzuetan Ermutik irteera kentzeko aukera azter dadin proposatu duzue zuek, Durangotik irten dadin, eta hori, gure ustez, ez da udalerrien arteko elkartasuna sustatzeko neurria. Eskerrak aztertzeko aukera soilik dela eta ez behin betiko proposamena. Bide batez, aukera hori bera planteatuko al zeniokete EH Bildu gobernuan lukeen udalerri bati? Guk uste dugu ezetz.

Lehen puntuari dagokionez, lehendik zegoen linea berreskuratzea aipatu duzue; badirudi jende gutxik erabiltzen zuelako planteatu zela itxiera. Eusko Jaurlaritzaren eskumena izanik, ez legoke gaizki zuen legebiltzar taldeak zuek sustatzen ari zareten zentzuan bidea egitea.

Garbi dago erakunde eskudunengana jotzea azkarragoa eta eraginkorragoa dela erakunde honi eskaera egitea baino, honek erakunde eskudunari eska diezaion arazoaren irtenbidea lantzeko. Baina entzute gutxiago lortzen da, noski.

Edonola ere, ez diogu uko egingo gure bizilagunen onurarako izan daitekeen azterketari, beraz, abstenitu egingo gara.

* 1. Alkate Ordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Testuan aipatutako beharra partekatzen dugu. Gaur egun egia da Durangotik Donostiara iristea benetan zaila dela garraio publikoan, eta horregatik emango dugu aldeko botoa.

Garraio Diputatuarekin izan ditugun elkarrizketetan aurreratu digu Gipuzkoako garraio diputatuarekin bilera izateko prest dagoela akordioa lortu ahal izateko. Funtsean

tentes, fundamentalmente la DFB, buscan principalmente el beneficio de la totalidad de la ciudadanía de Bizkaia, y cuando toca, el de alguna localidad o zona en particular, y ahí están los logros conseguidos. Para más detalles, si los quieren, que su grupo juntero pregunte al grupo juntero del Partido Popular.

Y decíamos que buscábamos el beneficio de la totalidad, porque ustedes proponen que se baraje la posibilidad de quitar la salida desde Ermua de alguno de los servicios de los que disfrutan para que lo hagan desde Durango; y esto, a nosotros, no nos parece que fomente la solidaridad intermunicipal. Menos mal que sólo se trata de una posibilidad de estudio y no de una propuesta definitiva. Por cierto ¿esta misma posibilidad la plantearían para un municipio gobernado por EH Bildu? Nosotros creemos que no.

En lo referente al primer punto, ustedes hablan de recuperar una línea que existía con anterioridad; parece ser que su cierre se planteó por el escaso número de viajeros que la utilizaba. Siendo competencia de Gobierno Vasco, no estaría de más que su grupo parlamentario se moviera en el sentido que ustedes están promoviendo.

Está claro que el acudir a las instituciones competentes es más rápido y más efectivo que el planteamiento de instar a esta institución a la competente para que aborde la solución de un problema. Lo que ocurre es que se consigue menos notoriedad.

En cualquiera de los casos, no nos opondremos a ningún estudio que pueda beneficiar a nuestros vecinos y vecinas, por lo que nos abstendremos.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Compartimos la necesidad que se traslada en el texto. A día de hoy es verdad que llegar a Donostia desde Durango es verdaderamente difícil en transporte público, y por ello vamos a votar a favor.

En las conversaciones que hemos mantenido con el Diputado de Transporte nos ha adelantado su predisposición a mantener una reunión con la Diputada de Transportes de Gipuzkoa y

aipatutako linea dugu buruan, Ermua-Donostia, eta linea jakin batzuk Durangotik abia daitezke eta zerbitzua eman Durangori.

Ados gaude proposamenarekin, beharra da, eta gaur egun horretan lanean ari gara errealitate izan dadin.

* **Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Interesgarria iruditzen zaigu EH Bilduren proposamena. Oso garrantzitsua da sustatzea, hobetzea eta garraio publikoaren kalitatea hor egotea. Gure ustez gabezia horiek aspalditik datoz, aspalditik baikaude gaizki komunikatuta.

Bitxia da Durangoren kasua, munduaren erdigunea izan ez arren, badela, gutxi gorabehera EAEko erdigunea, eta oso gaizki komunikatuta gaude bi hiriburuekin, Donostiarekin eta Gasteizekin. Konpontzeko egoerak izan dira, proposamenak egin dira, baina zailtasun handiak izaten jarraitzen dugu garraio publikoa erabiltzeko; gainera, campusetara joateko ikasleek izan ditzaketen buruhausteak ere aipagarriak dira. Interesgarria litzateke gai hau batzorde batean lantzea, edo batzorde ez-iraunkorra osatzea Durangoko garraioaren arazoa gainerako hiriburuekin edo unibertsitateekin lantzeko.

Udal talde guztien artean presioa egiteko modua izango litzateke, eta hala, informazioa izango genuke; izan ere, hemen, osoko bilkuretan, aurrerapenak jakinarazi dizkiguzue, beste erakunde batzuekin izandako elkarrizketak... eta interesgarria izango litzateke espazio hori izatea komunikazioa izateko ere eta denon artean Durangok kalitateko eta kantitate egokiko garraioa izan dezan presioa egiteko.

* 4. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Gobernu Talde bezala, berretsi egiten ditut Alderdi Sozialistaren bozeramaileak esandako hitz guztiak, aldeko bozka emango diogu mozioari.

Beste alde batetik, Herriaren Eskubideak egindako proposamena, batzordearen ingurukoa, hartu aintzat hartzen dugu, eta

a poder llegar a un acuerdo. Fundamentalmente estamos pensando en la línea que se menciona, Ermua-Donostia y que determinadas líneas puedan arrancar desde Durango y dar servicio a Durango.

Estamos de acuerdo con la propuesta, es una necesidad, y a día de hoy estamos trabajando en ello para que se haga realidad.

* Concejal **Sr. Rios Santiago (Herriaren Eskubidea)**: Nos parece interesante la propuesta de EH Bildu. Es muy importante potenciar, mejorar y que la calidad del transporte público esté ahí. Creemos que estas carencias vienen de largo, porque hace tiempo que estamos mal comunicados.

Es curioso que Durango, pese a que no es el centro del mundo, sí es, más o menos, el centro de la CAV, y estamos muy mal comunicados con dos capitales, Donostia y Gasteiz. Se han dado situaciones de arreglo, se han hecho propuestas, pero seguimos teniendo unas dificultades enormes para utilizar el transporte público y los quebraderos que puedan tener los estudiantes para acudir a los campus.

Sería interesante tratar este tema en una comisión, o formar una comisión no-permanente para tratar el problema del transporte de Durango con el resto de capitales o universidades. Sería una manera de hacer presión entre todos los grupos municipales, y de esa manera también tener información, porque aquí, en los plenos, nos habéis ido comunicando los avances, las conversaciones con otras instituciones... y también sería interesante tener ese espacio para que fluya la comunicación y entre todos hacer presión para que Durango tenga un transporte de calidad y cantidad.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Como Equipo de Gobierno, corroboro todas las palabras mencionadas por la representante del Partido Socialista y votaremos a favor de la moción.

Por otro lado, en cuanto a la propuesta que ha realizado Herriaren Eskubidea sobre la comisión, la tomamos en cuenta y nos parece buena

ideia ona iruditzen zaigu lana bertan egitea, bai gai honekin eta baita beste guztiekin ere.

* **Del Amo Castro jaunak (EH Bildu)**: Hasteko, eskerrak eman nahi dizkiegu aldeko botoa adierazi dutenei, eta batzordea ere ideia ona iruditzen zaigu, gainera gerta daiteke Alderdi Popularreko bozeramaleak aldeko botoa eman edo proposamenak eramatea bertara, normalean beti gertatzen delako gauza bera; ondo ikusten du EH Bilduk aurkeztutako mozio bat, baina gero beldurra edo kontrako agindua dauka bozkatzeko orduan, eta batzuetan txarto ulertzen ditu mozioak.

Gaztelaniaz esango dizut, uler diezadazun: Garate jauna, ez gara eskatzen ari Ermutik ateratzen diren autobusak Ermutik ateratzeari utzi eta Durangotik atera daitezen; eskatzen dugu Durangotik atera, Ermuan, Eibarren gelditu eta aurrera jarrai dezatela. Ez diogu Ermuari autobus-zerbitzua kendu nahi. Izan ere, zerbitzu hori bera, Eibartik Donostiara doan zerbitzua da, eta zenbait ordutan Ermutik irteten da. Uste dugu aukera dagoela hasiera Durangotik izatea.

Kendu duten trenaren inguruan, esan behar dut ni erabiltzailea izan nintzela eta bete egiten zen, seguruenik hainbat lekutan AVEk baino demanda handiagoa zeukan; beraz, uste dugu interesgarria izan daitekeela zerbitzu hori berreskuratzea, eta interesgarriagoa autobusarena.

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Gure ustez eskaerak dagozkien instantzietan egin behar dira eta, bestalde, eskertzen dugu Alderdi Popularraren funtzionamendua herritarroi azaltzea jarraibideak nola erabakitzen diren edo ez esanez. Eskertzekoa da batzorde honetan parte hartu ahal izatea ere, eta ekarpenak egitea, eta azkenik, eskertzekoa da oraingoan esan dudanari erantzun izana ere.

Eztabaida amaitu ondoren, Presidenteak gaia bozkatzea proposatu du. Emaitza hauxe:

idea trabajar en la comisión, tanto con este tema como con el resto de los temas.

* Concejal **Sr. Del Amo Castro (EH Bildu)**: Quisiera empezar agradeciendo a todos los que han anunciado su voto a favor y por otro lado, la idea de la comisión nos ha parecido buena. Además, podría suceder que el representante del Partido Popular vote a favor o presente propuestas, ya que ocurre siempre lo mismo; le parece bien una moción presentada por EH Bildu, pero luego, a la hora de votar, tiene miedo o una orden en contra, y a veces entiende mal las mociones.

Se lo diré en castellano para que me entienda: Señor Garate, no se está pidiendo que los autobuses que salen de Ermua dejen de salir de Ermua para salir desde Durango; se pide que salgan desde Durango, paren en Ermua, Eibar, y que sigan adelante. No le queremos quitar a Ermua el servicio de autobús. De hecho, ese mismo servicio es el que va desde Eibar a San Sebastián y a ciertas horas parte desde Ermua. Creemos que hay opción de que el servicio comience en Durango.

En cuanto al servicio de tren que se ha eliminado, debo decir que yo fui usuario y el tren se llenaba; incluso en algunos lugares tenía, seguramente, una demanda mayor que el AVE. Por lo tanto, creemos que podría ser interesante recuperar ese servicio y más interesante el servicio del autobús.

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Nosotros entendemos que las peticiones se deben de realizar en las instancias correspondientes y, por otro lado, agradecemos que nos explique a la ciudadanía el funcionamiento del Partido Popular con respecto de cómo se deciden las instrucciones o no. También agradecer que se pueda participar en esa comisión y hacer aportaciones, y por último agradecer que esta vez sí me ha respondido a lo que yo he dicho.

Finalizado el debate, la Presidencia somete el asunto a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

- Aldeko botoak: HOGEI, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 7 Euskal Herria Bildu, 3 Herriaren Eskubidea eta 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra.

- Kontrako botoak: BAT ERE EZ.

- Abstentzioak: BAT, 1 Alderdi Popularra HAMAR.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoekin, **ONARTU EGITEN DU** goian zehazturiko mozioaren testua.

- Votos a favor: VEINTE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 7 de Euskal Herria Bildu, 3 de Herriaren Eskubidea y 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra.

- Votos en contra: NINGUNO.

- Abstenciones: UNA, 1 del Partido Popular.

En su vista,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, **APRUEBA** el texto de la Moción anteriormente transcrita.

**ZAZPI.- ESKAERAK ETA ITAUNAK.**

- **Garate Mintegui jaunak (PP):** Eskaera bat besterik ez dut egin nahi: osoko bilkuren aurreko egunean izan ohi dugun Bozeramaileen Batzordeari erabilgarritasun handixeagoa ematea; saia gaitezen denon artean osoko bilkuren aurreko batzar horri zentzu handiagoa ematen.

- **Maeztu Perez jaunak (EH Bildu)**: Hainbat batzordetan eskatu ostean eta ez dugunez lortu Gobernu Taldeak kasurik egitea, erabaki dugu aste honetan Durangoko hainbat puntuetan zebra-bide batzuk margotzea.

  Ikusi dugu zein izan den Gobernu Taldearen erantzuna; hau da, berdez pintatuta zegoena gainetik beltzez margotzea. Zebra-bide horiek ez dira izan EH Bilduren asmakizuna, hainbat bider herritarrek eskatu dizkiguten zebra-bideak margotu ditugu. Edozein kasutan gure galdera hau da:

  - Zergatik ez ditu udalak margotzen zebra-bide horiek behar den moduan? Askotan esan digute diru kontua dela, baina ikusi dugu aurreko astean kreditu aldarazpen bat egin dela gurea ez den eta gure eskumena ez den eraikin bat botatzeko; alegia,

**SIETE.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

- Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Simplemente solicitar a la Junta de Portavoces que solemos tener el día previo a los plenos se le dé un poco más de utilidad en cuanto a la presentación de modificaciones o nuevas alternativas, pero que procuremos todos dar más sentido a esta junta previa a los plenos.

- Concejal **Sr. Maeztu Perez (EH Bildu)**: Después de haber solicitado en varias comisiones y al no conseguir que el Equipo de Gobierno nos haga caso, hemos decidido pintar, esta semana, varios pasos de cebra de Durango en verde.

  Hemos visto la respuesta del Equipo de Gobierno; es decir, pintar de negro lo que estaba pintado en verde. Esos pasos de cebra no los ha inventado EH Bildu, sino que hemos pintado los pasos de cebra que los ciudadanos nos han pedido varias veces. De todos modos, he aquí nuestra pregunta:

  - ¿Por qué no pinta el Ayuntamiento debidamente esos pasos de cebra? Nos han dicho muchas veces que es un problema de dinero, pero hemos visto que la semana pasada se ha realizado una modificación de crédito para derribar un edificio que no es nuestro ni de nuestra

425.000 euro ahalbidetu dira errekaren gainean, Montevideon, gaur egun gaztetxe bat daukan eraikin bat botatzeko.

Asko jota laugarrenak izango ginateke eskumenen zerrendan: lehenengoa jabea izan beharko litzateke bota behar zuena, bigarrena Confederación Hidrográfica del Norte, hirugarrena Ura, eta laugarrena udala. Ez da gure eskumena, baina 425.000 euro jartzen ditugu eraikin hori botatzeko; baina, bestalde, ez gara kapaz gure eskumena den herritarren segurtasuna ziurtatzeko zebra-bide batzuk margotzeko. Zergatik hartzen dira horrelako erabakiak?

- Jakin izan dugu Aramotzeko auzokideak egin dutela, auzolanaren bitartez, aspalditik eskatzen ari diren garbiketa. Batzordeetan eskatu izan dugunean garbiketa horiek udaletxetik egitea, esan zaigu foru aldundiaren eskumena zela errepidearen magala delako edo Uraren eskumena zela erreka bazterra zelako.

  Gure eskumena ez zenez, ezin genuen garbitu. Lehen esan dudan gauza bera; gure eskumena ez denez ezin dugu egin, baina gure eskumena dena ere ez dugu egiten. Berriz ere, zergatik hartzen dira horrelako erabakiak?

- Martxoan sartu genuen parte-hartze ordenantzari buruzko zirriborro bat, hilabeteak pasatu dira eta batzorde batetik bestera ibili da zirriborroa. Suposatzen zen urte bukaera baino lehen aukera izango genuela eztabaidatzeko. Uda garaian egin genituen gure proposamenak, eta jaso genuen Eusko Alderdi Jeltzalearen kontraproposamen bat. Urte bete pasatuko da datorren urteko martxoan, eta gure eskaera da ea urte bete pasa baino lehen parte-hartze ordenantza hori Osoko Bilkura honetan aztertzen dugun.

competencia; es decir, se han habilitado 425.000 euros para derribar un edificio que se encuentra sobre el río, en Montevideo, donde hoy en día se encuentra un gaztetxe.

Como mucho, seríamos los cuartos en la lista de competencias: en primer lugar, debería haber sido el propietario el encargado del derribo, en segundo lugar, la Confederación Hidrográfica del Norte, en tercer lugar, Ura y en el cuarto, el ayuntamiento. No es de nuestra competencia pero proporcionamos 425.000 euros para derribar ese edificio; pero por otra parte, no somos capaces de pintar unos pasos de cebra para asegurar la seguridad ciudadana que sí es competencia nuestra. ¿Por qué se toman decisiones de ese tipo?

- Hemos sabido que los vecinos de Aramotz han realizado mediante trabajo vecinal la limpieza que estaban pidiendo desde hace mucho tiempo. Cuando hemos pedido en las comisiones que dichas limpiezas sean llevadas a cabo por el Ayuntamiento, nos han dicho que era competencia de la Diputación Foral porque pertenecen a la ladera de la carretera, o que era competencia de Ura por ser una orilla de arroyo.

  Al no ser de nuestra competencia, no la podíamos limpiar. Lo mismo que he mencionado antes; cuando no es de nuestra competencia no podemos hacerlo, pero tampoco hacemos lo que sí es de nuestra competencia. Otra vez, ¿por qué se toman decisiones de ese tipo?

- Presentamos en marzo un borrador sobre la ordenanza de participación. Han transcurrido varios meses y el borrador ha recorrido varias comisiones. Se suponía que tendríamos la oportunidad de debatir en torno al borrador antes del fin de año. Presentamos nuestras propuestas en verano y recibimos una contraproposición por parte del Partido Nacionalista Vasco. El próximo marzo hará un año y nuestra petición es que a ver si antes de que pase un año podemos traer esa ordenanza de participación a este Pleno para su debate.

- PERI Ferrocarril: Beharrezkoa da hitzarmen bat sinatzea lurzoruaren jabearekin, ETSrekin. Askotan galdetu dugu ea zelan dagoen hitzarmen hori, eta ez da ezer aurreratu edo ez zaigu ezer esan. Berriz ere galdetuko dut, zelan dago hitzarmen hori?

- Garraio publikoaren inguruan hainbat erabaki hartu izan dira Osoko Bilkura honetan, baina ez dakigu betetzen diren ala ez. Orain gutxi esan zen beharrezkoak diren izapideak egiten ari direla markesina bat jartzeko Madalenan. Ez dugu markesina hori ikusten eta negua aurrera doa, hotza, euria... Ondo legoke negua pasatu aurretik markesina hori jartzea.

- Udal honek ez ditu onartu 2013, 2014, 2015 eta 2016ko Kontu Orokorrak. Zergatik? Eta zer gertatu behar da kontu orokor horiek osoko bilkura honetatik pasatzeko.

- Bakarrik gogoraraztea legediak esaten duela galderak egiten diren bilkura horretan edo hurrengoan, asko jota, zerbait erantzun behar dela. Batzuetan bertan erantzuten da, baina, ikusten duzuenez, beste batzuk ez dira sekula erantzuten.

- PERI Ferrocarril: Es necesario firmar un convenio con el propietario del suelo; es decir, con ETS. Hemos preguntado muchas veces sobre la situación de ese convenio. O no se ha avanzado, o no se nos ha dicho nada. Vuelvo a preguntar, ¿en qué situación está ese convenio?

- En este Pleno se han tomado varias decisiones sobre el transporte público, pero no sabemos si se cumplen o no. Se dijo hace poco que se están realizando los trámites necesarios para colocar una marquesina en Madalena. No vemos la marquesina y el invierno sigue adelante con frío, lluvia... Estaría bien que se colocara la marquesina antes de que pase el invierno.

- Este Ayuntamiento no ha aprobado las Cuentas Generales de 2013, 2014, 2015 y 2016. ¿Por qué? ¿Y qué tiene que pasar para que esas Cuentas Generales pasen por este Pleno?

- Tan solo quería recordar que según la ley, hay que responder algo en las reuniones que se plantean las preguntas o, como mucho, en la siguiente. Hay veces en las que se responden al momento, pero como veis, otras no se responden nunca.

Gai-zerrendan jasotako asuntoak amaitu ostean, eta 18:00ak direnean, alkatepresidenteak amaitutzat ematen du batzarra, eta akta jasotzeari ekiten zaio; eta nik, udalbatzako idazkari nagusia naizen honek, fede ematen dut.

Y HABIENDO finalizado con los asuntos comprendidos en el Orden del Día, siendo las 18:00 horas, por la Alcaldesa-Presidenta se da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta; de todo lo cual yo, como Secretario General de la Corporación, doy fe.